

alkarrizketa *Estibalitz Asua*

“Bedian herritarren aurrean abestutea erresponsabilitate handia da”

Estibalitz Asuak, bediaztar gazteak, barru barrutik sentitan dau musikea, umetan solfeo eta piano ikastetak egin ebazan, baina laster ikusi eban pianoa jotea baino, abestutea gurago ebala. Ordurik hona, gitarra batek lagunduta hainbat emonaldi eskaini dauz. Arratian hurrengo hitzordua Bedian bertan dauka.

ETBko Izar Bila programan parte hartu zenduan Bediaren izenean, zefango esperientzia izan zan eta zelan sartu zinen bertan?

Oso esperientzia polita izan zan. 1997an Euskal Kantu Txapelketea irabazi nebanez, Izar Bilan parte hartuteko aukera euki neban, nire abesti bategaz ganera. Holan animatu nintzen esperientzia barri baten bila. Oso esperientzia ona izan zan, gauza barri bat zalako eta oso gustokoa izan zan. Egia izan, agertoki ganera igoteak ez deust inoiz bildurrik emon baina kamara aurre aurrean eukiteak bai.

Izar Bila programak atek zabaltan lagundu zinduzala esan lei, Raulen kasua esaterako, zure kasuan zein izan da laguntza hori?

Bai, Raul nire ekitaldietan egon zan eta final berean parte hartu genduan. Baina Izar Bilak niri ez deust asko emon. Ni saioko gazteena nintzen hamazazpi urtegaz, nagusien saioan parte hartu neban, gazteena oraindik ez egoalako. Egia esan niri atek gehiago zabaldu deust Euskal Kantu Txapelketeak, Euskal herri osoko Txapelketa dalako.

Ez da hori ETBn egon zaren aidi bakarra, ezta?

Txapelketa irabaztean irrati, prentsa eta telebistan alkarrizketak egin eustiezan, eta ETBn be holan izan zan. KTM eta Lo Que Falta programetan egon nintzen eta bertan abestu neban. Euskal Kantu Txapelketea ganera bitan emon daurie telebistan. Nik bitan parte hartu dot Txapelketean, Gazteen Txapelketea irabazi neban eta nagusienean bigarren geratu nintzen.

Hain gatxa al da musika munduan sartutea? Eta zuk landuten dozun estiloak zerikusia dauka?

Gaur egun nik landuten dodan musika estiloagaz mundu horretan sartutea gabaxoa dala pentsetan dot. Orain musika cantzagarriagoa erabiltzen da, eta ni bakarlarria naz, oso lasaia, nire abestiak baladak dira eta horregaitik behar bada gatxagoa izango da musika mundu horretan sartutea. Beti esan dot horretaz bizitea oso zaila dala. Baten batek zugar konfiantza izan behar dauelako, bultzada bat emoleko. Baina musika nire gustokoa da, eta hobby moduan oso pozik egiten dot. Ganera ekitaldi baten jasoten dozun txalo zaparrada ez da ahaztuten, oso

garrantzitsua da.

Zure kantuak konposatu arren, bertinoak be egiten dozuz

Nire abestiak oso lasaia dira, horregaitik jaietako emonaldietan bertinoak be egiten dodaz. Askok nire ekitaldietan errantzarak garrantzi handia daukiela esaten daurie. Abesti ezagunak kantetan dodaz, jenteak nigaz batera kantetea gustetan jatalako.

Ze asmo daukazuz etorkizunerako?

Ez dakit egin ahal izango dogun baina nire lehenengo asmoa, aurten Bediako jaietan pausu barri bat emotea zan. Asmoa da abestiak gitarraz lagunduteaz ganera, pianoz lagundutea piano jole baten laguntzaz. Baina

azterketak direla eta ez dakit posible izango dan. Ho da orain buruan daukadana, taldetxu bategaz hastes Jagoneko pianoa sartu dogu, gustau jaku eta aurret segitea itxaroten dogu.

Bediako jaietako azken ekitaldia zure emonaldi izango da, zer sentitan da herrian kantautu?

Bedian abestutea erresponsabilitate handia da, danai ezagunak garelako, euren zeozer itxaroten daurielaki eta zuk daukazun guztia emon gura dozulako Bediako jaietan abestu neban aurreko aldian jarri oso ona izan zan. Orduan ez nintzan hain ezagun baina jente asko egon zan eta hori eskertutekoa da Oso animatuta nago.

